

## TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren helburu nagusietako bat da euskararen erabilera indartzea donostiarrei euskaraz bizitzeko baldintzak eskainiz, sentsibilizazioa bultzatuz eta euskara ez dakitenak euskalduntzera erakarriz.

Urtero egiten du Euskara Zerbitzuak irabazi asmorik gabeko elkarteentzat dirulaguntza deialdia, euskararen normalizazioaren eta sustapenaren aldeko proiektuentzat, hiru lan lerrotan: auzoetako plan integralak, jarduera zehatzak eta euskararen eguneko eta gau beltzeko egitasmoentzat.

Izaten dira, ordea, Donostian beste ekimen ezohiko edo puntualak, eta egileak ez dira beti izaten irabazi asmorik gabeko elkarteak edo Donostian erroldatutakoak. Ekimen puntual horiek (jardunaldiak, mintegiak, foroak, sari eta ziurtagiri banaketak...) euskararen normalizazioaren ikuspegitik, sarritan berrikuntza proposamenak edo ikerketa ildo berriak ekartzen dituzte.

Euskara Zerbitzuaren iritziz, mota honetako ekimenak bi aldetatik dira interesgarriak: batetik, Donostia hiriarri prestigioa ematen diolako euskararekin lotutako egitasmo bat Donostian izateak eta, bestetik, Donostiarentzat baliagarriak direlako ekimen horietatik atera daitezkeen ondorioak.

Ondorioz, Euskara Zerbitzuari beharrezkoa iruditu zaio aurten ere dirulaguntza lerro hau irekitzea, aipatutako ekimenak Donostian gauzatu ahal daitezen. 16.000 eurotako aurrekontua izango du dirulaguntza deialdiak.

Dirulaguntzen plan estrategikoan 2024-2026 jasota daude helburuak:

- Helburu estrategikoa: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.

- Helburu zehatzak:

1. Erakundeen eta eragile publiko eta pribatuen artean lidergoa eta elkarlana partekatzea
2. Euskararen erabilera indartzea.
3. Euskararen aldeko motibazioa eta zabalkundea

Honenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urriaren 29an eskuordetza emanik, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketa eta Euskarako zinegotzi-ordezkariak Donostiako Gobernu Batzarrari proposatzen dio honako erabaki hauek onar ditzala:



## ERABAKIAK

1. Donostian euskararen normalizazioa helburu duten jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea eta deialdiak egitea.
2. Dirulaguntzetarako 16.000 € bideratzea, eta gastua Euskara Zerbitzuko 2026ko aurrekontuaren 481.03 kontu sailari egoztea.
3. Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko onespena ematea.

Donostian, sinaduraren egunean

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTU KUDEAKETA ETA EUSKARAKO ZINEGOTZI  
ORDEZKARIA

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIA